# Aurretiazko genero eraginaren txostena

**Foru dekretu proiektua, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzekoa**

## 1. Sarrera

Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822/EB Zuzentarauak, zeinak 2011/16/EB Zuzentaraua aldatu baitzuen informazioa eman beharra dakarten mugaz gaindiko mekanismoen kasuan fiskalitate arloko informazio truke automatiko eta derrigorrezkoa emateari dagokionez, ezartzen du mekanismo horiek potentzialki planifikazio fiskal erasokorrekoak gerta daitezkeenean, haiei buruz informatu beharra egongo dela.

Informazio betebehar hori bi helburu nagusirekin ezartzen da. Batetik, informazioa lortzea gardentasun informatiboa areagotzen ari den

# Informe de evaluación previa de impacto de genero

**Proyecto de Decreto Foral por el que se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales**

## 1. Introducción

La Directiva (UE) 2018/822 del Consejo, de 25 de mayo de 2018, que modifica la Directiva 2011/16/UE por lo que se refiere al intercambio automático y obligatorio de información en el ámbito de la fiscalidad en relación con los mecanismos transfronterizos sujetos a comunicación de información, establece la obligación de comunicación de determinados mecanismos transfronterizos de planificación fiscal potencialmente agresiva.

Dicha obligación de información se establece con dos fines fundamentales. Por un lado, la obtención de información en un contexto internacional de intensificación de

nazioarteko testuinguruan, zerga saihesteari eta zerga ihesari traba jartzeko. Bestetik, efektu disuasorio bat sortzea potentzialki planifikazio fiskal erasokorrekoak diren mekanismoak erabili ez daitezen.

la transparencia informativa, en aras de poner freno a la elusión y la evasión fiscal. Por otro lado, la consecución de un efecto disuasorio respecto de la realización de mecanismos de planificación fiscal potencialmente agresiva.

## 2. Arau aldaketak

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hamazazpigarren eta hemezortzigarren xedapen gehigarrietan egindako transposizioa osatzeko aldatzen du foru dekretu honek betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua.

Edukia eman nahi zaio 47/2013 Foru Dekretuaren VI. tituluko II. kapituluko 5. Sekzioari. Horrela, beste gauza batzuen artean, ezartzen da:

- Zerga Administrazioari mugaz gaindiko mekanismoei buruz informatzeko betebeharra.
- Aitortu beharrekoak diren planifikazio fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoak zein izango diren.

## 2. Modificaciones normativas

El presente decreto foral modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales con el objeto de completar la trasposición llevada a cabo en las disposiciones adicionales decimoséptima y decimoctava de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se pretende dar contenido a la sección 5.ª del capítulo II del título VI del Decreto Foral 47/2013. Así, se establece, entre otras cosas:

- La obligación de informar a la Administración tributaria de los mecanismos transfronterizos.
- Que se considerará como mecanismo transfronterizo de planificación fiscal objeto de declaración.

- Komunikatzera behartzen duten baldintzak.

- Los requisitos que obligan a la comunicación.

- Aitorpena bitartekari gisa aurkeztera behartutako pertsonak edo entitateak.

- Las personas o entidades obligadas a presentar la declaración en concepto de intermediarias.

- Aitorpena zergapeko interesdun gisa aurkeztera behartuak.

- Los obligados a presentar la declaración en concepto de obligados tributarios interesados.

- Aitorpena Gipuzkoako Foru Aldundiari noiz aurkeztu behar zaion jakiteko irizpideak.

- Los criterios para determinar cuándo se deberá presentar la declaración a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- Planifikazio fiskaleko mekanismo jakin batzuen aitorpenaren edukia.

- El contenido de la declaración de determinados mecanismos de planificación fiscal

- Planifikazio fiskaleko mekanismo jakin batzuen informatzeko betebeharraren sorrera.

- El nacimiento de la obligación de informar sobre determinados mecanismos de planificación fiscal

- Garatu egiten dira Kontseiluaren 2011ko otsailaren 5eko 2011/16/EB Zuzentarauak, fiskalitatearen esparruko lankidetza administratiboari buruz jardun eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duenak, IV. eranskinean ezarritako zeinu bereizgarriak.

- Se desarrollan las señas distintivas determinadas en el anexo IV de la Directiva 2011/16/UE del Consejo, de 15 de febrero de 2011, relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad y por la que se deroga la Directiva 77/799/CEE.

- Merkaturatzeko moduko mugaz gaindiko mekanismoen eguneraketari buruz informatzeko betebeharra.
- Planifikazio fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoen erabileraz informatzeko betebeharra.
- Argitalpena Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan, informazio ondorioetarako soil-soilik, aitortu diren planifikazio fiskaleko mugaz gaindiko mekanismo esanguratsuenak.

## 3. Genero eragina

### 3.1 Genero egokitasuna

Proiektu honen helburu nagusia da aldatzea zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartua.

Proiektu honetan proposatutako neurriak izaera teknikokoak dira, eta zerga betebehar formal jakin batzuk betetzeari buruzkoak dira.

- La obligación de información de actualización de los mecanismos transfronterizos comercializables.
- La obligación de información de la utilización de los mecanismos transfronterizos de planificación.
- La publicación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a efectos meramente informativos, de los mecanismos transfronterizos de planificación fiscal más relevantes que hayan sido declarados.

## 3. Impacto de género

### 3.1 Pertinencia de género

Este proyecto tiene por objeto principal modificar el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

Las modificaciones propuestas en este proyecto son de carácter técnico, hacen referencia al cumplimiento de determinadas obligaciones tributarias formales

Zergak eraginkortasunez aplikatuko badira, ezinbestekoa da zerga obligazio formalak betetzea. Izan ere, horrela Zerga Administrazioak lortzen ditu zergak orokortasun, berdintasun eta ekitate printzipioei jarraituz aplikatzeko behar diren tresnak eta informazioa. Informazio hori eskuratu ezean, ezinezkoa litzateke zerga obligazioak betetzen direla kontrolatzea.

El cumplimiento de las obligaciones tributarias formales resulta imprescindible para una eficaz aplicación de los tributos, pues provee a la Administración tributaria de la información y herramientas necesarias para una aplicación de los tributos con base en los principios de generalidad, igualdad y equidad. Sin dicha información resultaría imposible el control del cumplimiento de las obligaciones tributarias.

Beraz, aldaketa horiek antolamendu juridikoari araugintzako zehaztasun handiagoa emango diote, betiere zerga arloko jarduketei eraginkortasun handia eskaintze aldera eta, azken finean, zerga sistema orokorrak hobeto funtzionatze aldera.

Por tanto, las modificaciones propuestas dotarán al ordenamiento jurídico de una mayor precisión normativa, que provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Funtsean zerga betebehar formal jakinei buruzko aldaketak dira, ez diote emakumeek eta gizonek gizartean duten estatusari edo berdintasuna lortzeko aukerari eragiten, eta ez dute gizartean eragina izango duen araurik sartzen. Eta nola ez dutenez eragiten baliabideak eskuratzeko aukeran, ondorioztatzen da ez dela egokia arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

Se trata, eminentemente, de modificaciones sobre determinadas obligaciones tributarias formales que no afectan a la situación ni a la posición social ocupada por mujeres y hombres, ni afectan al logro de la igualdad, ni introducen ninguna regulación con incidencia social. Y dado que no inciden en el acceso a los recursos, se determina que no es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak, Ekonomi Itunaren 3. artikuluak ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria.

Donostia, 2020ko otsailaren 28a

San Sebastián, a 28 de febrero de 2020

**Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**
**AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**